

6.HARREMANAK

Bezeroekin harreman hurbila eta fidagarria izan nahi dugu. Horregatik, sare sozialetan aktibo egongo gara, jendearen iritzia jasotzeko eta zigarro-muturren bilketari buruzko informazioa emateko. Webgunean galderak egiteko, eskaerak kudeatzeko eta gure proiektuaren berri izateko aukera egongo da.

Gure produktuak erosten dituztenean, bezeroek birziklapen-proiektu baten parte direla sentiarazi nahi ditugu, bai birziklatutako paperagatik bai zigarro-muturrak biltzeagatik ingurumenari egiten dioten ekarpena azalduz. Noizean behin, bildutako muturren kopurua eta horrek duen eragina erakutsiko dugu, jendea gehiago motibatuz.

Gainera, zigarro-muturren bilketa sustatzeko ekintzak egingo ditugu eta bezero leialentzat deskontuak, opari ekologikoak eta produktu berriak probatzeko aukerak eskainiko ditugu, adibidez birziklatutako paperez egindako koadernoak edo zigarro-muturrekin sortutako paperezko produktuak.



